


HOME / GAIAK / LITERATURA / [BIDEOA] ADINEKOEN MUNDUAK DAKARTZA MAIXA ZUGASTI IDAZLEAK 'ATARIAN' ELEBERRIRA



(argazkia: Kultur Sharea)

GIPUZKOA LITERATURA NABARMENDUAK PORTADAN

[BIDEOA] ADINEKOEN MUNDUAK DAKARTZA MAIXA ZUGASTI IDAZLEAK 'ATARIAN' ELEBERRIRA

By Ainhoa Lores Aranda / 2022-06-06

Eleberria hiru ahotsetan dago idatzita: bi adineko pertsonenak dira eta hirugarrena kontrapuntu moduan funtzionatu nahi duen nerabe batena da. Idazleak adinekoen maitasun kontuak nabarmendu nahi izan ditu lan berrian.

Adinekoen munduak dakartza Maixa Zugasti idazlearen (Tolosa, 1973) *Atarian* eleberriak, kaleratzen duen bigarrena. Donostian aurkeztu du liburu berria Erein argitaletxearen eskutik.

Egileak azaldu duenez, eleberria hiru ahotsetan dago idatzita, "bi adineko pertsonenak dira eta hirugarrena kontrapuntu moduan funtzionatu nahi duen nerabe batena da". Leandro Hernaniko baserri bateko azken jabea da eta Maite alabak Sandiusterrri egoitzan sartu nahi du gogoz kontra, burua nahasi zaiolako aitzakian. Haren benetako kezka, ordea, baserriaren jabetza da. Zugastik kontatu duenez, "bertan dagoela, mendekua gauzatzen hasiko da". Egoitzaren barruan, Juanek babestuko du Leandro, asmo iluneko gizona da Juan.

Kate-begien moduan uztartzen diren istorio hauetan, Paula agertuko da bi gizonen alboan. Oin bat haurtzaroan, bestea helduen munduan duela, mugarria igarotzeko atakan dago neskatoa, lehen maitasunarekin ametsetan.

Zugastik 21 ataletan banatu du eleberria eta azaldu duenez, trama sei egunetan gertatzen da, "pertsoneiak eurak dira kapitulu bakoitzeko narratzaile".


Hala, idazleak adinekoen maitasun kontuak nabarmendu nahi izan ditu eleberrian, izan ere, aurreiritzi asko ditugula iruditzen zaio Zugastiri, "gaia ez da asko landu eta hemen hiru maitasun istorio agertzen dira, neskatoa ere lehen maitasunarekin ametsetan dabil".

Liburuaren lehen zirriborroa 2020an bidali zuen argitaletxera idazleak, itxialdiaren hasieran, baina pandemian zaharren egoitzetan bizi den egoera agerian geratu dela azpimarratu nahi izan du. Liburuan kasualitatez jorratu du gai hori.



Zabaldu:

Tags: Atarian, Erein argitaletxea, Euskal Literatura, Maixa Zugasti

 <p>DENA PREST DA PASAIAKO DANTZA FESTIBALARI HASIERA EMATEKO</p>	<p>'GAZTE KLIK KLAK' LEHIAKETAN AUKERATUTAKO LAN ONENAK BILTZEN DITUEN ERAKUSKETA ZABALDU DUTE GASTEIZEN</p> 
--	--



Lege oharra

✉ albisteak@kultursharea.eus

